# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 829

*EBAZPENA, 2015eko otsailaren 2koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena. Honen bidez, diru-laguntzak ematen dira Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS + programaren esparruaren barruan.*

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak Europako Erkidegoen 2013ko abenduaren 12ko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Erasmus +-eko Programaren (2013/C262/04) EAC/S11/13 proposamen-deialdia. Bertan, 2014ko ekitaldirako proposamen-deialdia ezartzen da.

Ebazpen honetan KA1 ekintzetarako laguntzak arautuko dira, hau da, Lanbide Heziketaren eremuan langileen mugikortasuna –bereziki irakasle, hezitzaile, zuzendari eta gazte-begiraleena–, bai eta ikasleen mugikortasuna ere, betiere erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketaren sektoreetan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko urriaren 21eko Aginduak diru-laguntzetarako deialdia egiten du Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS + programaren esparruaren barruan.

Dagozkion eskaera-espedienteak aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean aipatzen diren entitateei diru-laguntzak ematea, adierazten diren proiektuak antolatu eta burutzeko; ondoan diru-laguntzen zenbatekoak ere ageri dira.

2. artikulua.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzako Programa Europarrak atalari dagokio I. Eranskineko zerrendan agertzen diren erakundeei emandako diru-laguntzen kudeaketa. Diru-laguntzaren ordainketa zein laguntza eman osteko prozeduraren jarraipena, 2014ko urriaren 21eko Aginduak ezarritakoa izango da (Agindua, 2014ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuarena; honen bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten da Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, Erasmus + programaren esparruaren barruan).

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 2a.

Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
JORGE AREVALO TURRILLAS.

I.ERASKINA

ENTITATE PRIBATUENTZAKO 2104/2015EKO DIRU-EKARPENAK LANBIDE HEZIKETAREN EREMUAN IKASKUNTZARAKO KA1 MUGIKORTASUN-EKINTZAK ANTOLATU ETA GARATZEKO, ERASMUS + PROGRAMAREN ESPARRUAREN BARRUAN.

| KONTRATUA | CIF | ENTITATEA | | DIRU-LAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| 2014-1-ES01-KA103-000129 | A20045548 | Cebanc, S.A. | | 9.776,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000128 | B20676680 | Centro For. de Administración y Hostelería (CDEA) | | 13.542,40 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000151 | B20462057 | Escuela de Cine y Video | | 15.930,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-001618 | G20465159 | Ikaslan Gipuzkoa | | 171.646,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-002433 | G20040374 | Centro Cultural Nazaret | | 5.276,80 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000785 | F20057865 | Tolosako Inmakulada Ikastetxea S. Coop. | | 2.346,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-002288 | G20117156 | Goierriko Eskola | | 4.612,00 € |
| | | GUZTIRA GIPUZKOA | 223.129,20 € | |
| 2014-1-ES01-KA103-000474 | G48409205 | Hetel | | 88.560,80 € |
| 2014-1-ES01-KA103-001383 | V48152672 | Confebask | | 68.860,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000388 | F48106215 | Politeknika Ikastegia Txorierri, S. Coop. Ltda | | 11.446,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000502 | R4800613D | Centro Formación Somorrostro | | 9.040,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-001200 | G48484257 | Asoc. Indep. Centros de Enseñanza Aice | | 22.505,00 € |
| 2014-1-ES01-KA103-000495 | A48073100 | Centro Educativo Arangoya-Promoción y Cultura, S.A. | | 2.766,00 € |
| | | GUZTIRA BIZKAIA | 203.177,80 € | |
| | | | | 426.307,00€ |